

Maria Urcola Arruabarrena

- Orendainen jaio zen 1911/07/05ean.
- 1935/05/09an Orendainen ezkondu zen, Juan Bautista Iraola Eceizabarrenarekin.
- Hernanin hil zen 1939/06/26an.
- Orendaingo Zaragoza baserritik Hernanira joan ziren bizitzera, eta han hil zen 2 alaba utzita, zaharrena 3 urtekoa; gero, Maria Antonia Urcola Arruabarrenarekin ezkondu zen Juan Bautista 1940/05/08an Urnietan.
- Orendainen, beste gizon askok bezala, ahoko soinua jotzen zuen erromerietan. Alaba Maritxuk ere entzuna zuen hori.

Jose Julian Arsuaga Izaguirre

- Orendainen jaio zen 1904/07/10ean.
- Orendainen hil zen 2002/06/12an.
- Orendaingo eskolan eta, gero, Eskolapioetan ibili zen; hor, lanean aritzen zen eta egunean ordu pare bat ikasten.
- Izebak txikitan oparitutako soinuarekin hasi zen, bere kabuz, soinua jotzen; oso ondo jotzen omen zuen.
- Orendaingo “kruzen” (bidegurutzean) eta jotzen zuen soinua, igandetan. Bidearteko sagardotegian ere jotzen zuen; oso gustukoa zuten lagunek.
- Oso isila omen zen.

Jose Bernardo Garmendia Elosegui

- Orendainen jaio zen 1914/07/11n.
- Lazkaon hil zen 1993/04/29an.
- Eskolan Orendainen ibilia.
- Ezpainetako soinua bere kabuz ikasi zuen, afizio handia zuen eta ondo jotzen omen zuen.
- “Kruzen” eta “muelle” azpian jotzen omen zuen, zenbait bazkaritan ere bai.
- Bere soinua ez zion inori uzten.

Jose Antonio Garaialde San Sebastián

- Orendainen jaio zen 1914/06/10ean.
- Tolosan hil zen 1985/03/16an.
- Eskolan Orendainen ibilia.
- Soinua jotzen bere kabuz ikasi zuen; oso ondo jotzen omen zuen.
- Igande arratsaldetan, “Bezperetatik” atera ondoren jotzen aritzen ziren, eta jendea dantzan.

Joakin Garmendia Elozegi

- Orendainen jaio zen 1923/06/01ean.
- “Kruzen” eta San Sebastian ermitan jotzen zuen.
- Bertso paperekin elkartzen ziren gazteak eta Abaltzisketa bidean joaten ziren soinua jo eta kantatuz, “Aimaritarako” (igande eta jaiegunetako ilunabarreko elizako kanpaiak) etxera itzultzeko. Igandero elkartzen ziren.
- Anaia zenari idazten erakusteagatik oparitu zioten soinua.
- 16 urterekin Prodeman hasi zen lanean eta, gero, CAFen jarraitu zuen, jubilatuta arte.
- Pilotaria ere izan zen. Behin, Legorretan jokarazi zioten lagunek, desafioa egin omen zuten eta; hutsean utzi zuen aurkaria.
- Dantzari ona izan zen.
- Ilobak: bi panderojole, bi trikitilari, soinu handia jotzen duen bat eta bi pianista ditu.

Jose Maria Garmendia Elozegi

- Orendainen jaio zen 1926/10/12an.
- Legorretan hil zen 2005/01/02an.
- Ezkongabea zen.
- Orendaingo erromerietan jotzen zuen, bere senideek eta lagunek egiten zuten moduan. Lotsatia omen zen.
- Bere kabuz ikasi zuen soinua jotzen.
- Lanbidea: baserria eta fabrika (Prodema).
- Markos Landarekin batera jotzen saioak egiten zituen (Markos pentsua eramatera joaten zenean).

Jose Antonio Gonzalez Quildos

- Zizurkilen jaio zen 1949/05/19an.
- Bertako eskolan ibili zen ikasten.
- 13 urterekin Orendaina etorri zen; Eskolapioetan egon zen bi urte eta erdi; gero, Basaurira ere joan zen, baina laster itzuli zen Orendaina, eta hor bizi da.
- Ahoko soinua jotzen du eta soinu handia ere bai zertxobait. Elkartean eta tabernan asko jotzen dute, batzuetan gitarraz ere lagunduta.

Jose Antonio Garmendia Etxeberria

- Orendainen jaio zen 1951/02/18an; Jose Bernardo Garmendiaren semea.
- Ikasketak Orendaingo eskolan egin zituen, eta lanean hasi beharra izan zuen gazterik.
- Lanbidez makina gidaria.
- Ahoko soinua jotzen aitarekin ikasi zuen, eta etxean biak aritzen ziren jotzen askotan.
- Eguberrietan kantariekin batera jotzen zuen soinua, eta herriko elkartean ere bai noizean behin, beste batzuekin elkartuta.